



DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



LEGELARIA

Ahal izan beharko dugu, nahi izanez gero

ASKOTAN, gutxien espero denean, gauzak ezustean aldatzen dira. Europako hauteskunderi esker –batzuek ez diete ezer eskertuko, noski–, panorama politikoa eraldatzen hasi da. Irakurketa asko dira posible, aldagai askoren arabera: lurraldeak, alderdiak, ideologiak... Nik nirea egin dut, ilusioaren eta etorkizunaren arabera –hau ere zilegia da eta–.

EAEn emaitzek panorama irekia utzi dute: EAJk irabazi du, EH Bildu gertu duelarik. PSOEek eta PPK sekulako jipoia jaso dute eta Ezker Anitzak eta Podemosek lortutako bozen kopuruak bermatzen die toki interesgarria etorkizunean.

Nafarroan egoera desberdina da, baina joera antzekoa: PPK irabazi du, baina EH Bildu atzetik gertu doakio. PSOEek –PSNk– kolpe latza hartu du, EAJk emaitza kaxkarrak lortu ditu, Izquierda Ezkerra eta Podemosen oso atzetik.

PP saiatu da bere porrota ezkututzen, irabazi duela gogoratuz, baina kolpea galanta izan da. PSOEek, aldiz, aukera hori ez du izan: bere porrota nabarmena izan da, aurrerapauso handia emateko aukera zuela adierazi eta gero. Orain jabetzen ari da, derrigorrez, norabide garbirik ez duela

Katalunian oraindik dena erabakitzeko dago: ERC, CIUren aurretik jarri da, bien artean %55 gainditzen dute eta Espainiako alderdi nagusiek behera egin dute nabarmen.

Espainian, zaila da emaitzak argi goak izatea: PPK gehi PSOEek 5.000.000 bozka galdu dute eta bien artean ez dira %50era iristen –%26 eta %23–, Izquierda Pluralek %10 lortu du, Podemosek %8, UPyDk %6,5, Primavera Europeak %2, eta abar.

Europar, nabarmenena, gehien azpimarratu dena, alderdi ultraeskuin eta xenofoboaren igoera izan da. Benetan sinestezina da Frantziar, Ingalaterran, Danimarkan edo Austriar alderdi horiek botoen %10etik %29ra lortu izana.

Oso zaila da ondorio orokorrak ateratzea, baina argi dago herriak aldaketaren alde egin duela apustua: Europar eskuinera jo dute, EAEn eta Nafarroan, Espainian bezala, ezker aldera egin da bira. Bi era desberdinak herritarren haserrea bideratzeko eta oso ondorio desberdinak ekar ditzaketanak, noski.

Honaino emaitzak. Baina emaitza hauen ondorioak dira orain eztabaidagai, batez ere Espainian: gehiengo absolutuaz Gobernuan dagoen PPK botoen %26 besterik ez du lortu eta orain gutxira arte gobernatu duen PSOEek %23 bakarrik.

PP saiatu da bere porrota ezkututzen, irabazi duela gogoratuz, baina kolpea galanta izan da. PSOEek, aldiz, aukera hori ez du izan: bere porrota nabarmena izan da, aurrerapauso handia emateko aukera zuela adierazi eta gero. Orain jabetzen ari da, derrigorrez, norabide garbirik ez duela, proiekturik gabe dagoela eta aspaldian uko egin diola politika ezkertiarri. Hauteskunde hauetan herriak bizkarra eman die, bai bere politikari, baita bere liderrei ere. Lan latza du hemendik aurrera –liderra hautatzea gutxienezko izango delarik–. PSOEek –PSE eta PSN barne, noski– erabaki sakonak hartu behar ditu, birfundatu behar du, bere rola aukeratu eta bere esparrua deliberatu, hau da, herritarren eskubideen alde ala botere ekonomikoen eta Espainiako batasun eztabidaezinaren alde aukeratu behar du.

Gure lurraldean panorama desberdina da, jakina. Ezkerra indartsu atera da hauteskunde hauetatik –EH Bildu buruan, baina baita Ezker Anitza eta Podemos ere– eta aliantza berriak espero daitezke etorkizunean. Bestalde, EAJ eta EH Bilduren arteko lehia ikusgarria izaten ari da, batez ere Gipuzkoan, eta urtebete besterik ez dago datozen udal eta foru hauteskundeetarako.

Halere, hauteskunde hauen ondoriorik deigarriena hauexa izan da: espazio berriak zabaltzen ari direla, orain arte aldaezina eta iraunkorra zitudien egoera mugitzen hasi dela eta gure etorkizun beltza aldatzeko gai garela, horrela nahi izanez gero. ■

